



Nafarroako oposizioak 2010

I. Bigarren Hezkuntzako espezialitateetan atera dituzten plazak:

ESPEZIALITATEAK	Elbarrientzako erreserba		Sarrera librea		Igotzeko prozedura	
	Gazt.	Vasc.	Gazt.	Vasc.	Gazt.	Vasc.
Irudi Pertsonaleko Aholk. Eta Proz.			1		1	
Biologia y Geologia	3	1	18	4	19	5
Marrazketa	1	1	5	3	6	4
Gorputz Hezkuntza			5	4	5	4
Fisika y Kimika	1	1	5	2	6	3
Lanerako Prestakuntza eta Orintazio	1		2		3	
Frantsesa	1	1	3	2	4	3
Geografia eta Historia	3	1	13	4	14	5
Informatika			1		1	
Ingelesa	3	1	22	4	23	5
Gizarte eta Komunitate Esku-hartzea			1		1	
Latina	1	1	1	1	2	2
Gaztelania eta Literatura	3	1	26	4	27	5
Euskal Hizkuntza eta Literatura		2		14		14
Matematika	3	2	28	9	29	9
Musika	1		5		6	
Fabrik. Mekanikoa Antol. Eta Proiek			1		1	
Hezkuntza Orientabidea	2	1	7	2	7	3
Sistema Elektronikoak			1		2	
Teknologia	2	1	17	5	17	6
GUZTIRA	25	14	162	58	174	68

II. Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen Kidegoa:

ESPEZIALITATEAK	Sarrera Librea	Igotzeko Prozedura
Diseinu Grafikoa	1	1
Argazkigintza	1	
Ikus-entzunezkoak	1	
Baliabide informatikoak	1	1
GUZTIRA	4	2

III.Lanbide Heziketako espezialitateak:

ESPEZIALITATEAK	Sarrera Librea		Reserva Minusválidos	
	Cast.	Vasc.	Cast.	Vasc.
Sukaldaritza eta Pastelgintza	3		1	
Estetika	3			
Instalazio Elektroteknikoak	2			
Ekipo Termikoak eta Fluidoek Ekip. Inst. eta Mantentzea	2			
Ibilgailuen Mantentze-lanak	5			
Makinen Mekanizazioa eta Mantentze-lana	7			
Nekazaritzako Ekoizpeneko Lanak eta Ekip	2			
Ile-apainketa	4			
Administrazio Kudeaketako Prozesuak	2			
Jatetxeko Zerbitzuak	2			
GUZTIRA	32		1	

IV.Hizkuntza Eskola Ofizialetako kidegoa

ESPEZIALITATEAK	Sarrera Librea
Euskara	4
Ingelesa	5
GUZTIRA	9

V. Musikako eta Arte Eszenikoetako Kidegoa

ESPEZIALITATEAK	Sarrera Librea
Akordeioa	2
Harpa	1
Kantua	1
Klabezina	1
Moko flauta	1
Gitarra	1
Pianoa	3
Saxofoia	2
Tronpeta	1
Tuba	1
GUZTIRA	14

VI Arte Plastikoetako eta Diseinuko Tailer-maisua

ESPEZIALITATEA	Sarrera Libre
Argazkigintza eta Berregintzako Prozesuak	2
GUZTIRA	2

EPE honetan parte hartu ahal izateko bete beharreko **betekizunak:**

Bigarren Hezkuntzako Irakasleak eta Hizkuntza Esk. Ofiz. etako Irakasleen kidegoak:

- a) Doktore, Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto **titulua** edo dagokion Gradua izatea.
- b) Irakaskuntzarako baliokideak diren tituluak.
- c) LOEren (Maiatzaren 3ko 2/2006 Legea) 100.2 artikuluaaren araberrako **Prestakuntza didaktiko eta pedagogikoa**.
 - o Unibertsitateko Master titulu ofiziala.
 - ✓ Baldintza hau **betetzeaz salbuetsita** daude 2009ko urriaren 1a baino lehen izatea:
 - Maisu-maistra, oinarrizko hezkuntza orokorreko irakasle diplomatura, lehen hezkuntzako maisu-maistra, pedagogia eta psikopedagogia lizentziatura titulua dutenak edo prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa barne duten titulu baliokidea dutenak.
 - Teknologia, Psikologia-Pedagogia eta Lanbide Heziketako Espezialitateetara aurkezten diren izangaiak.
 - 12 hilabeteetako esperientzia irakasle moduan irakaskuntza arautuetan baimenduriko ikastetxe publiko edo pribatuetan.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoa:

- a) Doktore, Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto **titulua** edo dagokion Gradua izatea.
- b) **IV eranskinean** aipatzen diren espezialitateetan irakaskuntzarako **baliokideak** diren tituluak

Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoa:

- a) Diplomadun, Arkitekto Tekniko edo Ingeniari Teknikoaren **titulua** edo dagokion Gradua izatea.
- b) **V eranskinean** aipatzen diren espezialitateetan irakaskuntzarako **baliokideak** diren tituluak.
- c) **Bi urteko** lan esperientzia: onartuak izango dira nahiz eta baldintza orokor gisa eskatzen den titulua ez eduki, gutxienez bi urteko lan esperientzia irakaskuntzan Hezkuntza Departamenduaren ikastetxe publikoetan aritu direnak eta aurkezten diren espezialitateko familia bereko **Goi Mailako Teknikari** edo **Teknikari Espezialista** titulua dutenak (777/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30).
- d) Otsailaren 27ko 334/2004ko Errege Dekretuan agertzen den bezala 4 deialdiak agortu diren espezialitateetan izan ezik. **V eranskinean** agertzen da Instalazio Elektroteknikoak eta Makinen Mekanizazioa eta Mantentze-lanak espezialitateetan gaztelaniazko 4 deialdiak agortu dira, baina euskerazko 3 gelditzen dira.

Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen kidegoa:

- a) Doktore, Lizentziatu, Ingeniari, Arkitekto titulua edo dagokion Gradua izatea.
- b) **VI eranskinean** aipatzen diren espezialitateetan irakaskuntzarako baliokideak diren tituluak.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko Tailer-maisuen kidegoa:

- a) Unibertsitateko diplomadun, Arkitekto Tekniko edo Ingeniari Teknikoaren titulua edo dagokion Gradua izatea.
- b) **VII eranskinean** aipatzen diren espezialitateetan irakaskuntzarako baliokideak diren tituluak.

Elbarrientzat gordetako prozeduaren parte hartzeko **berariazko betebeharrak:**

Eskatutako baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzeaz gain, **%33**ko edo hortik gorako **ezgaitasuna** aitortua duten pertsonen , betiere iraksle lanerako oro har eskatzen den gaitasun funtzionala badute, eta lortu nahi den espezilitaterako behar dena ere bai.

Ariketak egiteko **denbora eta baliabideetan** behar dituzten **egokitzapenei** dagozkienez aparteko orri batean adierazi beharko dute.

"B" taldean dauden funtzionarioak **"A" taldera igotzeko** prozeduran parte hartzeko **berariazko betebeharrak:**

"B" taldean dauden irakasle kidegoetako funtzionarioek, parte har dezakete, baldin eta kidego horietan sartzeko eskatutako **titulazioa** badute eta jatorrizko kidegoan **gutxienez 6 urte** eman badituzte karrerako funtzionario gisa.

Bigarren Hezkuntzako Euskarazko irakasgaien edo Euskal Hizkuntza eta Literaturan edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako **euskararen** lanpostuetan sartzeko **berartiazko betebeharrak:**

Euskal Filologian lizentziatuak, EGA (Euskara Gaitasun Agiria), Hizkuntza Eskola Ofizialetako ziurtagiria, Euskaltzaindikoa edo baliokideak diren tituluak.

Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiantzako **berariazko betebeharrak:**

Gaztelaniaz behar bezala badakitela egiaztatu beharko dute, hurrengo baliabide hauetako bidez:

- Gaztelaniaren Goi mailako diploma izatea.(urriaren 31ko 1137/2002 E.D.)
- Gaztelaniaren ezagutza proba gainditzea
 - Gutxienez 200 hitz dituen idazlana osatuz
 - Epaimahaiarekin elkarrizketa izanez.

OPOSIZIO-LEHIAKETA

Irakasle Funtzio Publikorako sarbide prozesua oposizio-lehiaketaren bitartez egiten da.

Oposizio Aldian proba egingo da, hainbat zatitan banaturik. Zati bakoitzari 0-10 bitarteko nota ematen zaio eta ondoko taulan zehazten denaren arabera pisua ematen zaio:

PESO DE CADA PARTE							
	Ariketa praktikorik gabe		Teknologia, Musika, Gorputz Hezkuntza eta Hizkuntza Eskola Ofizialak		Ariketa Praktikoarekin		
					Iruki Pertsonaleko Aholk., Lanerako Prest. eta Orient., Informatika, Gizartean eta Komunit. Esku-hartzea, Fabrikazio Mekanikoaren Antol. Eta Proiektuak, Sistema Elektronikoak (DBH) L.H.ko Irakasle Teknikoak, Arte Plastiko eta Diseinu Tailer-maisua eta Musikako Irakasleak		
A							40%
B	B.1	30%	B.1	20%	B. 1	10%	60%
	B.2	30%	B.2	20%	B. 2	10%	
			B.3	20%	B. 3	40%	

Lehiaketa aldira pasatzeko: probaren bukaerako nota ≥ 5

Lehiaketa aldian merituak barematzen dira.

Oposizio-Lehiaketaren Bukaerako nota (0-10 puntu) honela lortzen da:

$$\text{BUKAERAKO NOTA} = (\%60)\text{OPOSIZIOA} + (\%40)\text{LEHIAKETA}$$

- ✓ Izangaiak egindako Programazioa eman behar dio Epaimahaiari honen aurrean aurkezteko ekitaldian. Horretarako ekainaren 16tik aurrera deia agertuko da Departamentuko web orrian. A atala egin baino lehenago izango da ekitaldi hau.

OPOSIZIO ALDIA/PROBA

Oposizio Aldian proba bat bi ataletan (ez kanporatzaileak) zatitua egingo da. Soilik probaren bukaerako nota (0-10 puntu) argitara emango da.

A ATALA:

Irakaskuntzan aritzeko berariazko ezagutzak frogatu beharko dira. Tribunalak gai zerrendatik ausaz ateratako gai batzuen artean bat aukeratu eta idatziz garatzea.

- Arte Plastikoetako eta Diseinua, Lanbide Heziketako Irakasle teknikoak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako espezialitateetan **bost gaitatik bat** aukeratuko du.
- Gitarra eta piano eta Argazkigintza eta Berregintzako Prozasuetan **lau gaitatik bat**.
- Musikako gainontzeko beste espezialitateetan **hiru gaitatik bat**.

- Ariketa hau egiteko, 3 ordu emango dira.

Atal hau prestatzeko **GAITEGI OFIZIALAK: VIII. Eranskina**

- **Bigarren Hezkuntzako Irakasleak:**
 - 1993ko irailaren 9ko Agindua, ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuak araututakoa.
- **Lanbide Heziketako irakasle Teknikoak eta Bigarren Hezkuntzako espezialitate** hauetan: Irudi Pertsonala, LPO-FOL, Informatika, Gizarte eta Konjunitatean Esku-hartzea, Fabrikazio Mekanikoren Ant. Eta Proi., Sistema elektronikoak.
 - 1996ko otsailaren 1eko Agindua (1996ko otsailaren 13ko EAO)
- **Euskal Hizkuntza eta Literatura:**
 - 374/1999 Lege Forala azaroaren 3koa (abenduarien 20ko NAO) 86/2000 Lege Forala martxoaren 9koak eraldatuta (martxoaren 20ko NAO)
- **Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa:**
 - Martxoaren 22ko ECD/826/2004 Agindua (2004ko martxoaren 31ko EAO)
- **Lanbide Heziketako Irakasle teknikoek kidegoa:**
 - 1996ko otsailaren 1eko Agindua. (1996ko otsailaren 13ko EAO).
- **Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak:**
 - Ingelesa: 1996ko otsailaren 1eko Agindua (1996ko otsailaren 13ko EAO)
 - Euskara: martxoaren 5eko ECD/477/2003 Agindua (2003ko martxoaren 6ko EAO)
- **Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoa:**
 - Otsailaren 15eko ECD/310/2002 Agindua (2002ko otsailaren 19ko EAO), 2002ko apirilaren 24ko EAO n zuzendua.
- **Arte Plastiko eta Diseinuko Tailer-Maisuen kidegoa:**
 - Martxoaren 22ko ECD/826/2004 Agindua (2004ko martxoaren 31ko EAO)

B ATALA:

Izanagaiak prestatuko duen programazioa epaimahaiari eman beharko zaio, horren aurrean aurkezteko ekitaldian. (ekainaren 15etik aurrera)

Izangaiaren gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzan aritzeko beharrezkoak diren teknikak menperatzen dituela egiaztatzea. Ondoko zatietan banatzen da:

B.1) PROGRAMAZIO didaktiko baten aurkezpena eta AHOZKO DEFENTSA:

Espezialitate guztietarako, Hezkuntza Orientabidea ezik:

- ✓ Parte hartzen den espezialitatearekin harremana duten arlo, irakasgai edo modulu baten curriculumari buruzkoa izango da.
- ✓ Zehaztu beharko dira: helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta metodologia, eta hezkuntza premia berariazkoak dituzten ikasleei lagutza moduak ere.
- ✓ Espezialitate horretako irakasleriak irakasteko gaitasuna duen maila edo hezkuntza-etapa batetariko ikasturte batekoa izango da.
- ✓ Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kasuan, DBH, Batxilergo edo Lanbide Heziketako Heziketa Zikloei buruzkoa izan daiteke.
- ✓ Gehienez **50 orrialdeko** luzera (DIN-A4 formatua, alde bakarretik edukiko du).
- ✓ Gutxienez, zenbakiturik egongo diren **10 unitate** didaktiko edukiko ditu. **Musikako** eta Arte Eszenikoetakoek gutxienez **6 unitate**.

- ✓ Programazioa emango zaio Epaimahaiari honen aurrean aurkezteko ekitaldian, A atala egin baino lehenago.
- ✓ Izangaia bakoitza honetarako deitua izaten denean, Epaimahaiaren aurrean bere Programazioaren ahozko defentsa egingo du (iraupena: gehienez **30 min**).
- ✓ Izangaia egokia ikusten duen material osagarriak erabili ditzake (norberak eraman beharrekoa)
- ✓ Tribunaleko mahaikoek edozein momentuan izangaiari interpelatu diezaizokete.

Hezkuntza Orientabidearen espezialitatean:

- ✓ Ikasturteko lan plana eratuko du non eskuartzeko psikopedagogiko 10 programa ezberdinak agertuko dira. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edo Lanbide Heziketa aukeratu dezake hautagaiak aurreko plana osatzeko.

NAFARROAn egun indarrean dauden curriculumak:

DBH: 25/2007 FORU DEKRETUA martxoaren 19koa (2007ko maiatzaren 25eko, 65 NAO)
53/2007 Foru Legea, maiatzaren 23koa (2007ko ekainaren 13koa, 73 NAO)

Batxilergoa: 49/2008 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa (2008ko ekainaren 6ko, 70 NAO)
66/2008 Foru Legea, maiatzaren 14koa (2008ko ekainaren 9ko, 71 NAO)

HEO: 22/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa (2007ko maiatzaren 4ko NAO);
58/2008 Foru Dekretua, ekainaren 2koa (2008ko ekainaren 25ekoa, NAO)

B.2) UNITATE didaktiko baten prestaketa eta aurkezpena

Aurkezturiko programazioaren unitate didaktiko baten prestaketa eta ahozko aurkezpena (norberak zoriz ateratako **3ren artean** aukeratuko du).

- ✓ Unitate didaktikoan zehaztu beharko dira: ikakuntzaren helburuak, edukiak, gelan garatu beharreko irakaskuntza-ikasketa jarduerak eta errekonstruzio jarduerak, denbora banaketa ebaluaziorako prozedurak, tresnak eta kalifikaziorako nahiz oinarritzko gaitasunak garatzeko irizpideak (soilik DBH etaparako)
- ✓ Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Berariazko Lanbide Heziketako Espezialitateetarako eta Arte Plastikoetako eta Diseinu, Lanbide Heziketako irakasle tekniko eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailer-maisuen espezialitateetan, unitate didaktikoan zehaztuko dira: ikakuntzaren amaierako gaitasuna edo emaitzak, edukiak, irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak eta errekonstruzio jarduerak, denbora banaketa, ebaluaziorako tresnak eta kalifikaziorako irizpideak eta etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galdu duten ikasleentzako ebaluazio tresna eta sistemak.
- ✓ Lanbide Heziketako berariazko espezialitateetan, bai Bigarren Hezkuntzako kidegoetan, bai Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan, unitate didaktikoa lan unitateei buruzkoa izaten ahalko da, eta kasuan kasuko lanbide profileko gaitasun unitateei dagozkien amaierako gaitasun edo emaitzekin lotuta egon beharko du.
- ✓ **Hezkuntza Orientabidearen** espezialitatean, B1 ariketan programazio didaktikoari buruz aurkeztutako urteko lan planaren barreneko esku-hartze psikopedagogiko programetako bati buruzkoa izanen da.
- ✓ Unitate didaktikoaren azalpenean erabili ahalko da:
Norberak egokia ikusten duen material osagarria (norberak eraman beharrekoa)
Gidoi bat (gehienez folio bat), bukatzerakoan epaimahaiari emango zaiona.
- ✓ Guztira, Unitatea prestatzeko **ordu bat** emango da
- ✓ Programazioaren ahozko defentsa: gehienez **30 minutu**.
- ✓ Epaimahaiko kideek edozein momentuan izangaiari galderak egin ahalko dizkiote.
- ✓ B.1 eta B.2 atalak egin behar dituen izangaia **ordu beteko** saio bakarrean egin behar ditu.

Deialdiaren **9. 1.2.2. atalean** zehazten diren baldintzak betetzen dituzten izangaiek **B.2 zatia** Hezkuntza Sailak helburu honetarako izendatuko dituen Batzordeek egingo duten **txosten** batez ordezkatzeko eskatu ahal izango du. Txosten honetan izangaiek UNITATE DIDAKTIKO bati buruz dituen ezagutzak baloratuko dira. Izena ematerakoan aukera hau eskatu beharko da eta ondoren ezinezkoa izanen da atzera jotzea.

Txostena eskatu egiten duen izangaia **EZ DA SALBUETSITA EGONGO PROBAREN B.1 ZATIA EGITETIK**, hau da, epaimahaiak deitutako ekitaldian programazioa entregatzetik eta epai mahaiaren aurrean programazio hori defendatzetik, defentsa egiteko deitzen zaionean.

B.3) Ariketa praktikoa, IX Eranskina:

Bigarren Hezkuntzako Irakasleak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleak:

Gorputz Hezkuntza:

Erresistentzia, malgutasuna, abiadura, indarra eta erlaxazioa arloetariko baten batean edo guztietan ariketak diseinatzeke izangai bakoitzaren ahalmena egiaztatzeke baliagarria izan behar du.

Musika:

1. Partitura edo pasarte baten analisi musikal zein didaktikoa. Epaimahaiak aurkeztuko du. Horretarako 2 ordu izanen du. Notaren % 40 balioko du.
2. Epaimahaiak jarritako pieza labur edo zati baten irakurketa zuzena. 10 minutu izanen du. Notaren %30
3. Oposiziogileak hautatutako pieza edo pasarte bat interpretatu musika tresna edo ahotsa erabiliz. 5 minutu izanen du. Notaren %30

Bigarren Hezkuntzako gainerako espezialitateetan:

Epaimahaiak gai zerrendei buruz proposatzen duen kasu praktikoa bat ebatzi beharko dute izangaiek.

Lanbide Heziketako irakasle teknikoan eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tailer- maisuan:

Epaimahai bakokitzak zehaztuko du nola zehazten diren ariketaren eduki praktikoa eta iraupena, espezialitate bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Izangai bakoitzaren espezialitateke ezagutza praktikoa gaitasuna egiaztatzeke baliagarria izan behar du eta gaitegiarekin zerikusia edukiko du.

Hizkuntza Eskola Ofizialeko Irakasleak:

3 zatitan egingo da:

1. Alderantzizko itzulpena (B.3 ariketaren notaren %40a)
2. Itzulpen Zuzena (B.3 ariketaren notaren %10a)
3. Gaur egungo testuaren analisia, 225/250 hitzetakoa maila ezberdinetan (pragmatikoa, semantikoa, morfosintaktikoa eta fonologikoa) (B.3 ariketaren notaren %50a) Iraupena: **4 ordu** gehienez.

Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleak:

Instrumentu: Akordeoi, Harpa, Klabezin, Moko flauta, Gitarra, Piano, Saxofoi, Tronpeta, Tuba:

1. Oposiziogileak aukeratutako Kontzertu-programa baten aurkezpena: bost obra gutxienez. Interpretatu beharko ditu, epaimahaiak hautatzen dituenak. 30 minutu gutxienez (%75)
2. Epaimahaiak proposatutako duen obra edo pasarte baten azterketa formal, estetiko eta didaktikoa. Bi ordu prestatzeko eta ordu erdia ahoz azaltzeko. (%25)

Kantu espezialitatea:

1. Oposiziogileak aukeratutako kontzertu-programa baten aurkezpena: bost obra eta gutxienez hiru hizkuntza ezberdinetan. Epaimahaiak hautatutakoak interpretatu. 30 minutu horretarako (%75)
2. Epaimahaiak proposatutako duen obra edo pasarte baten azterketa formal, estetiko eta didaktikoa. Bi ordu prestatzeko eta ordu erdia ahoz azaltzeko (%25)

HIZKUNTZETAKO ESPEZIALITATEetako proba (zati guztiak ulertzen da) dagokion hizkuntzan egin behar da.

Euskarazko plazarazko eskuratzeko bi hizkuntzak erabili ahal izango dira, euskara zein gaztelera.

B.2) Ariketa TXOSTEN batez ordezkatea (9.1.2.2.)

Nortzuk eska dezakete txostena?

- Baldintza hauek betetzen dituzten irakasleek:
- ✓ Deialdia NAOn argitaratzen den egunean, sartu nahi den kidegoko **lanpostu berean 3 hilabetez** aritu izana edo, **eszedentzia berezian**.
 - ✓ **Amatasun lizentzia** egoeran dauden pertsonak ere eduki ahal izango dute txostena egiteko aukera, betiere azken baldintza hau betetzen badute, ekainaren 1a baino lehenago.

Noiz/nola eskatu txostena?

- Izangaiek parte hartzeko eskabidean horretarako dagoen **laukian adierazi** beharko dute aukera hori eta eskaera aurkeztu ondoren ezin izango dute aldatu.
- Dagokien Hezkuntza Administrazioak luzatutako zerbitzuen ziurtagiria erantsi beharko diote eskabideari.
- Nafarroako Hezkuntza Departamentuak betebeharrak betetzen diren **ofizioz** egiaztatuko du.

Non/noiz aurkeztu behar da unitate didaktikoa?

- ✓ Izangai onartuen behin betiko zerrendak argitaratu denetik **5 astegunetako** epea izanen du **norberak** aurkezteko.
- ✓ Hezkuntza Departamentura eraman behar du bakoitzak berea.

UNITATE DIDAKTIKOaren ezaugarriak:

- ✓ Unitate didaktiko bana aurkeztu beharko du kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko.
- ✓ Indarrean dagoen curriculumaren eta parte hartzen den espezialitatearen arabera izango da.
- ✓ Gunitate didaktikoak 30 orri izanen ditu gehienez, DIN-A4 formatukoak, alde batetik bakarrik idatzia.
- ✓ Unitatea DBH edo HEOri buruzkoa bada, zehaztu beharko dira gaitasunen garapena (HEOen kasuan) edo oinarritzko gaitasunen garapena (DBHren kasuan) eta hauei buruzko ikasleek lortu behar duten lorpen maila.
- ✓ Hizkuntzetako espezialitateetan unitate didaktikoa dagokion hizkuntzan egingo da.
- ✓ Euskaraz emanen diren espezialitatei badogikie, izangaiek aukera izanen dute gaztelaniaz ala euskaraz egiteko.

Nork/nola egingo du txostena?

Batzorde batzuk eratuko ditu Hezkuntza Departamentuak. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proposatuko dituen irakasle funtzionarioek osatuko dituzte eta Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ebazpenaren bidez izendatuko dira.

Txostenek ondorengo puntu hauek izango dituzte oinarri:

1.- Ikaskuntzaren helburuen zehaztasuna.

- ✓ Helburuak teknikoki ondo formulatuta daude, koherenteak dira eta curriculum ofizialaren orokorrenak zehazten dituzte.
- ✓ Kasuan kasuko ikasmillara eta ikasleen ezaugarrietara egokituta daude.

2.- Edukiak /Gutxienezko edukiak.

- ✓ Edukien selekzioa bat dator helburuen proposamenarekin.
- ✓ Curriculum ofizialaren esparruan daude eta egokiak dira proposatzen den ikastarorako.
- ✓ Haien formulazioa anitza da eta irizpide epistemologiko, testuinguruaren arabera koei eta funtzionalei ematen diete erantzuna.

3.- Irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak.

- ✓ Jardueren programazioa lagungarri da helburuak lortzeko eta proposatutako edukiak garatzeko.
- ✓ Motibagarriak, anitzak, zailtasunaren arabera mailakatuak eta ikasle gehienek egin ahal izateko modukoak dira.
- ✓ Aurreikuspenen arabera, baliabide didaktiko desberdinak erabiliko dira.

4.- Ebaluatzeko prozedurak.

- ✓ Bat datoz proposaturiko helburu, eduki eta jarduerekin.
- ✓ Askotarikoak eta malguak dira, ikasleen aniztasunera egokituta daude eta errekuiperatzeko tresnak aurreikusten dituzte.

5.- Oinarritzko gaitasunen garapena (soilik DBHko etaparako)

- ✓ Unitate didaktikoaren ekarpena oinarritzko gaitasuna garatzeko.
- ✓ Oinarritzko gaitasunen lortze maila.

Aurreko ataletako ebaluazioa egingo da, ondokoa adieraziz: EZ edo BAI (eta kasu honetan oso ongi, ondo, nahiko edo ez nahiko). Oharrak ere gehituko dizkiote.

Epaimahaiak Otik 10era bitarteko puntuazioa emango dio, probaren bukaerako nota lortzeko B.2) atalari ematen dion pisu berbera ematen diolarik.

LEHIAKETA ALDIA/MERITUAK

GEHIENEZ 10 PUNTU	
MERITUAK	PUNTUAK
I. IRAKASKUNTZAKO ESPERIENZA (gehienez 7,000 puntu)	
I.1. 1 urte aurkezten den kidegoan (ikastetxe publikoak) (Osatu gabeko urteak: 0,0583 puntu hileko)	0,700
I.2. 1 urte beste kidegoetan (ikastetxe publikoak) (Osatu gabeko urteak: 0,0292 puntu hileko)	0,350
I.3. 1 urte maila bereko irakaskuntza arautuetan (bestelako ikastetxeak) (Osatu gabeko urteak: 0,0125 puntu hileko)	0,150
I.4. 1 urte maila ezberdineko irakaskuntza arautuetan (bestelako ikastetxeak) (Osatu gabeko urteak: 0,0083 puntu hileko)	0,100
II. PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA ETA ETENGABEKOA (gehienez 4,000 puntu)	
II.1. Kidegoan sartzeko <u>baldintza orokor gisa</u> eskatutako titulazioan izandako espediente akademikoa . Batezbesteko nota horrela baloratuko da:	
6 edo 7 bitartekoak	1,000
7 edo 8,5 bitartekoak	1,250
8,5tik - 10	1,500
II.2. Gradu-ondokoa, Doktoretza eta aparteko sariak:	
II.2.1. Baldintza ez den kasuetan, Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiri-Diploma (RD 778/1998) edo Master Titulu Ofiziala (RD 56/2005), ikerketarako gaitasuna edo baliokidea den beste tituluren bat	1,000
II.2.2. Doktore Titulua	1,000
II.2.3 Doktoretzan aparteko saria	0,500
II.3. Bestelako unibertsitate-titulazio ofizialak (aurkezteko baldintza ez direnak)	
II.3.1. Lehenengo zikloko titulazioak	1,000
II.3.2. Bigarren zikloko titulazioak	1,000
II.4. Erregimen Bereziko Irakaskuntzetako eta Berariazko Lanbide Heziketako Titulazioak:	
a) Musika edo Dantzako lanbide-titulua	0,500
b) Goi-mailakoa edo baliokidea den HEOko egiaztagiria, EGA edo baliokidea	0,500
c) Goi-mailako Arte Plastiko eta Diseinuko Teknikari Titulua	0,200
d) Goi-mailako Lanbide Heziketako Teknikari Titulua	0,200
e) Goi-mailako Kirol Teknikari Titulua	0,200
II.5. Etengabeko prestakuntza:	
Etengabeko prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, aurkezturiko espezialitatearekin, edo hezkuntza-antolaketa, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriak, didaktika, hezkuntzako psikopedagogia edota soziologiarekin lotuta daudenean, bai Hezkuntza Administrazioak edota Unibertsitateek deitutakoak, bai etengabeko prestakuntza planak barne hartzen dituenak eta hezkuntza administrazioarekin kolaboratzen duten erakundeek antolatutako edota Hezkuntza Administrazioak onartzen dituen jarduerak:	
a) 3 kreditutik gora	0,2000
b) 10 kreditutik gora	0,5000
Soilik Musika espezialitateari dagokionez, Musika Kontserbatorioek antolatutako ikastaroak modu bertsuan baloratuko dira. Atal honetan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten 20 ordu baino gehiagoko ikastaroak metatu ahalko dira.	
III. BESTELAKO MERITUAK (gehienez 2,000 puntu)	
III.1. Espezialitatearekin lotutako argitalpen didaktiko eta zientifikoak	1,000
Hezkuntza proiektuetan parte hartzea:	
Ikasturte bakoitzean parte hartzeagatik	0,2000
Ikasturte bakoitza koordinatzeagatik	0,5000
Hizkuntza modernoetako Certificate bakoitzak (ingeleza, frantsesa, italianoa.)	0,5000
Musikan konposizio, argitalpen edo grabaketa bakoitzeko	0,5000
Zuzendari, bakarlari nahiz orkestrako bakarlari gisa...	0,5000
Erakusketa edo lehiaketetan sari bakoitza	0,5000

EE-EILASSTEE-EILASSTEE-EILASSTEE-EILASSTEE-EILASSTEE-EILA

STEE-EILAS